

Bigarren eun-urtebete gogoragarria




JOSU'REN BIOTZ deuna maitasun-laba gori da. Sumen-tzulotik, moltzoka, gaia darion sumendia dirudi. Onen bizia gizonaganako bere goi maitasuna! Aldia izan zan baño lenago maite ginduzan, orain maite gaitu, ta etorkizunean be maite izango gaitu, bere biotz-atsegiña giza-semeakazko artu-emonean dago-ta.

Maitasun ofek eragin da, ezerezetik sortu ginduzan. Eta geroago, obena-bide, geure Egilearen maite-ur garbiak laga-ta, txerenan menpean jari gintzazanian, gaizto ofen erpe artetik gu ataratearen, zeruko aintza ta zorion-aulkia itxirik, luera jatsi zan, arantza artera. Geure soñekoz jantzi, geure aragi ilkoia ta antza arturik, gizon egin zan. Oso apaldu zan, gizona zeruraño jisoz.

Geuri euskun maitasunaren, Koskotegi-mendian gurutzetik dingilizka ifiro il zan; bere Biotzeko odol gusia, azkenengo tantaraño, pozik emon eban. Bialduak diñoskunez, gizona bere Jaungoikoagandik ufintzen eban orma sendoa Berak luferatu eban, bien artean, au da, Egilearen eta egiñaren edo gizonaren artean batasun estua egiñaz. Beraz Josu dogu bitarteko. Goiko aldetik bere aita, Jaun altsua dauko; beko aldetik gizona. Bere Biotz bitartez, Jauna gizonagana makurtzen dau ta gizona Jaunagana jasoten dau.

Gurutzan untzez josi ondoren, gudari batek aztamakilagaz Biotza zulatu eutson, eta bat-batera odola ta ura erion. Afezkerro, eskar edo grazi gustiak Biotz zulatu aretatik datorkiguz. Bera da guretzat bizitz-ituri, atsegin-sorburu; egañirik biziña beingoan ifoteko bein edatea naiko dau ur garbi ezilkoia; Bera eskar oroen ituri agor-eziña, geure maitasunaren bizia emon eban Biotza.

Baña maitasun-iturri au, aspaldiz, ezagun-eza yakun; gizaldi luzez ixilik egona. Gizonak ez eban bere bañirik; ta, azkenean, Josu'k berak iragarri euskun. Alakoke'tar Margarite Miren deunari Berak agertu eutsozan, maitaro, bere Biotz gurgariaren kezka eta atsekabiak, gizonari eutson maitasun opaya, ta onek ordañez emotsazan irain lafi aztunak. Arantza zofoztez josita



dago Josu-Biotza, ta odolduten daben arantza ofeik gizonen obenak dira. Maitalerik zintzo ta onena Bera da. Amak bere umeak baño laztanago dauz gizonak; oneik, oster, maitasun gustien jatofiri opagaritari atzea emon eta iges dagie Beragandik; saltzale ditu.

Goiko Jaunak, zeru ta lufen Egile danez, bereak ditu oro. Bera da zeru-lufetako Bakaldun edo erege bakara, eskubide ori inok ezin leiskio ostu. Gizonak, baniz, Jaunaren nayerara ezerezetik sortua izan zan lez, lipar edo une baten beñiro ezere-

zera biurtua izan leiken txindurí makalak eztau gogo Bakaldun ori nagusitzat; Josu'ren buztarí biguna irdarausí gura dau. Onen eskar gaiztokoa da! Alan eta gusti be, irain aztun oneik Biotzean degitsoezan zauriak aitzu egiten ditu. Josu'k eztautso iñoz iñori bere maitasun-ur garbirik ukatu. Iñozkorik gogofen bere kaltez dabiltzazan aldi onetan be, gizonakanako maitasunez eřetan dago-ta, gizon eskar txarękoak eloriz josi daben Bictza ikurtzat arturik, eraspen edo deboziño edeřa iragaři dausku.

Alakoke'tar Margarite Miren lekaime zintzoaren bitartez Josu-Biotzak egindako eskiñi ta eskar-ituři agor-eziñaren bafi lur-baster gustietara tximist letxe eldu zan. Pantze-aldian La Colombiere zorionduna izan zan eskintza onein zabaltzale nagusi.

Euzkadi'n, lenengoz, Jesu-Biotza'ganako eraspenatzaz itz-egin ebana Kardaberaz Aba izan zan. Jayotzez ernanitará bera. Aba agurgaři au ikasle zala be arduraz ibili zan, gero España'n lan geyen egin eban Hoyos abagaz batera, Josu-Biotza'ganako eraspena zabaltzen. 1733'ko Bagiła'ren 11'an egin eban Kardaberaz'dar Agustin Abak bere lenengo itzaldia. Bilbao'ko Andoni deunaren eleizan eta Josu'ren Biotza'ganako eraspen edo deboziñuatzaz bera Euzkadi'n etzan auřetik gai onetzaz itz-aldirik egin; ezta España'n be, gero asko zabaldu zanařen. Edozelango itzaldia etzan izan, bilbotaręak begi onez ikusi ta belariz zoliz entzun ebena baño. Aurten ospatzen dogu Josu-Biotza'ganako eraspenatzazko len-itzaldiaren bigařen eun-urtebetea.

Kardaberaz'ek gartsu lan egin eban eraspen au euzkotaręn artean zabaltzen. Laster irazan ebazan Bilgoak be. Lenengo Elořio'n, gero Zornotza'n, Markiña'n, Legazpi'n eta abar. Beriala zabaldu zan Euzkadi osora Josu-Biotza'ganako eraspen eder au, ta gaurko egunean eraspen onek euzkotaręn biotzetan suster sendoak eginda daukoz. «Sendiai bakea emongo dautsiet» iñotson Josu'k Alakoke deunari, ta euskotar zintzoak bake-biła bere Biotzera juan oi dira; «atsekabietan poztuko dodaz», ta atsekabe-lořetan araxe, poztasun-biła. «Nire Biotzaren iduria agirian aintzalduten dabenen etxeak onetsiko dodaz», ta gure artean etxe gitxi izango dira Josu-Biotza'ren irudirik ataburuan eztaukonik.

Goraldu ta omendu daigun Josu'ren Biotza, eskar gustien ituři garbia ta Bera ixango da gure Zaindari, batez be gaur-egun estu oneitan; Berak azpiratuko ditu gure arerio gustiak.